



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 9a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Berriozarko udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Berriozarko udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Berriozarko udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Berriozarko udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).
 - II.1. Auditoriaren finantzarioko iritzia (5. or.).
 - II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).
- III.** Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (6. or.).
 - III.1. 2015eko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoeraorria (6. or.).
 - III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta (7. or.).
 - III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (7. or.).

III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera (8. or.).

III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (9. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (10. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (10. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (13. or.).

IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (13. or.).

IV.4. Alderdi orokorrak (13. or.).

IV.5. Langileak (14. or.).

IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (15. or.).

IV.7. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).

IV.8. Inbertsioak (16. or.).

IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).

IV.10. Hirigintza (18. or.).

IV.11. Berrikilan S.L. sozietatea (19. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (21. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (21. or.).

Eranskina. Udalaren 2015eko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dago-kion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Berriozarko Udalari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Berriozarko udalerriak 2,7 km²-ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean, 9.625 biztanle dauzka.

Berriozarko Udalak ez du erakunde autonomorik.

2015eko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	5.784.281	6.026.387	93
Guztira	5.784.281	6.026.387	93

Berrikilan, S.L. izeneko udal enpresa publikoa sortu da 2011ko abenduan, 3.300 euroko kapital sozialarekin. Haren hasierako xedea, 2012tik, Udalaren kirol instalazioak kudeatzea da. 2012an, enpresa publiko horri enkargatu zaio Udalaren zenbait lokal garbitzea. Enkargu hori 2013tik aurrera gauzatu da.

Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira.

Entitatea	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitza	Langileen 2015eko batez besteko kopurua
Berrikilan S.L.	1.093.377	1.056.609	36.768	48

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

b) Antsoain, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan erotan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2015ean
Iruñerria	153.440
Gizarte zerbitzuak	167.276

Burlatan dagoen Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan (EEZB) ere parte hartzen du.

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Sozietate publikoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X		
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua		X		
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika Eskola	X			
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Kontsumitzaileen arreta zerbitzua			X	
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	X			
Kirolak	X			
Kirol-jardueren kudeaketa			X	
Udal kiroldegiak				X
Babestutako enplegu soziala		X		
Diru-bilketa exekutiboa			X	
Gizarte eta hezkuntza arloko plana			X	

Entitatearen aurrekontua 2014ko abenduaren 21ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharrak jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Berriozarko Udaleko alkateari eta alkate ohiari eman zitzaizkien ezagutzera, alegazioak aurkez zitzaizkien. Finkatutako epea iraganda, alkatearen alegaziorik jaso ditugu.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Berriozarko Udaleko eta Berrikilan enpresa publikoko langileei.

II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Berriozarko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko irailaren 28ko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako aldeko iritzi hau eratortzen da.

II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritzia

Gure iritzi, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, hots, Udalaren ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izandako emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2015eko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

III.1. 2015eko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERAORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	3.209.084	37.995	3.247.079	3.161.469	97	3.111.947	98	49.522
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.527.792	-49.652	1.478.140	1.485.536	101	1.351.013	91	134.523
3. Gastu finantzarioak	1.200		1.200	180	15	160	89	20
4. Transferentzia arruntak	811.744	-9.546	802.199	779.258	97	698.889	90	80.369
6. Inbertsio errealak	124.474	190.512	314.986	320.311	102	319.657	100	654
7. Kapital-transferentziak	30.000		30.000	29.970	100	29.970	100	0
8. Finantza-aktiboak		7.557	7.557	7.557	100	7.557	100	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0		0		0
Guztira	5.704.294	176.867	5.881.161	5.784.281	98	5.519.194	95	265.087

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubi-deak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Betetakoa (%)	Kobrantzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.141.247		2.141.247	2.168.961	101	1.766.909	81	402.052
2. Zeharkako zergak	85.800		85.800	128.475	150	101.118	79	27.357
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	719.172		719.172	811.395	113	602.506	74	208.888
4. Transferentzia arruntak	2.658.864	29.495	2.688.359	2.789.111	104	2.714.935	97	74.176
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	58.182	1.832	60.014	67.350	112	47.872	71	19.478
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0		0		0
7. Kapital-transferentziak	42.000		42.000	26.471	63	24.698	93	1.773
8. Finantza-aktiboak		145.540	145.540	34.622	24	0	0	34.622
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0		0		0
Guztira	5.705.265	176.867	5.882.132	6.026.387	102	5.258.038	87	768.346

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	6.050.629	6.026.580
- Aitortutako betebeharrak	6.193.419	5.784.281
Aurrekontu-emaiza	-142.789	242.299
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	85.808	16.026
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	0	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	623.888	50.177
Aurrekontu-emaiza doitu	395.290	276.450

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	890.265	793.135
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	678.026	768.670
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.151.878	1.103.986
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	89.687	12.705
(+) Gastuen itzulketak	25	25
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	64.274	67.044
(-) Bilketa zaileko eskubideak	965.076	1.025.207
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	637.491	442.743
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	441.193	265.087
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	24.860	27.336
(+) Diru-sarreraren itzulketak	10.020	10.150
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	26.117	28.117
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	187.535	168.287
(+) Diruzaintzako funts likidoak	3.399.121	3.480.636
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.651.895	3.831.028
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	85.808	16.026
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	2.245.038	2.197.529
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.321.049	1.617.473

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Ibilgetua	28.177.703	27.278.372
1. Ibilgetu materiala	27.957.330	27.143.113
2. Ibilgetu ez-materiala	213.169	213.169
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0,00	-58.050
4. Herri-ondasunak	0,00	0
5. Finantza-ibilgetua	7.204	-19.862
C. Zirkulatzaila	5.194.566	5.794.265
8. Zordunak	954.540	770.179
9. Finantza-kontuak	3.425.238	3.511.303
10. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	814.788	1.512.783(*)
Aktiboa, guztira	33.372.269	33.072.637

(*) Kontu horretan 2014ko eta 2015eko emaitzak metatzen dira, zeren eta 2014ko saldoa ez baita aldatu ondare-kontuetara.

Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Funts berekiak	32.132.452	32.022.798
1. Ondarea eta erreserbak	19.015.573	18.879.448
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3. Kapitaleko diru-laguntzak	13.116.879	13.143.350
C. Epe luzeko hartzekodunak	480.810	480.810
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	480.810	480.810
D. Epe laburreko hartzekodunak	759.007	569.029
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	663.608	470.860
6. Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	95.400	98.169
Pasiboa, guztira	33.372.269	33.072.637

III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015EAN

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2014	2015	Hartzeko	2014	2015
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	445.950	453.577
61 Langile-gastuak	3.229.089	3.161.563	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	337.767	383.768
62 Finantza-gastuak	177	180	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuoak	1.637.038	1.720.194
63 Tributuoak	110	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	451.267	449.834
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.514.071	1.484.702			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	7.324	11.605
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.839.493	2.789.111
67 Transferentzia arruntak	763.885	779.258	77 Kapitalaren gaineko zergak	66.423	127.408
68 Kapital-transferentziak	54.999	29.970	78 Bestelako diru-sarrerak	30.519	29.796
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	2.025.901	2.172.400	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	980.005	965.076
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	792.446	697.703
Guztira	7.588.231	7.628.073		7.588.231	7.628.073

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	792.446	697.703	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	4.481	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	17.861	291	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Mozkin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	0	0	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	814.788	697.995
Guztira	814.788	697.995	Guztira	814.788	697.995

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, honako hauek jaso ditugu: kudeaketa arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 5,70 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 3,1 –hau da, 176.867 euro– handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 5,88 milioikoak dira. Aldaketa hauek, funtsean, inbertsioen kapituluan dute eragina.

Aitortutako betebeharrak 5,78 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 98ko betetze-maila izan dute.

Aitortutako eskubideek 6,02 milioi egiten dute, ehuneko 102ko betetze-mailarekin; kapitulu gehienetan, ehuneko 100 baino gehiago bete da, salbu eta kapital-transferentzienean eta aktibo finantzarioenean.

Izaerari begiratuta, gastuen ehuneko 94 eta diru-sarreren ehuneko 99 arruntak dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	55	Tributu bidezko diru-sarrerak	52
Bestelako gastu arruntak	39	Transferentziak	47
Inbertsioak	6	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	1
Finantza-zama	0	Zorduntzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

	2014	2015	Aldearen %, 2015/2014
Aitortutako betebeharrak, guztira	6.193.419	5.784.281	-7
Likidatutako eskubideak, guztira	6.050.629	6.026.387	0
Gastuen betetzea (%)	89	98	
Diru-sarrerren betetzea (%)	87	102	
Ordainketak (%)	93	95	
Kobratutakoa (%)	91	87	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	5.507.331	5.426.443	-1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	5.507.154	5.426.263	-1
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	686.089	350.281	-49
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	0	7.557	
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.815.780	5.965.293	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	2.884.110	3.108.831	8
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	234.848	26.471	-89
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	51	47	-8
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	52	57	10
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-142.790	215.041	-251
Aurrekontu-emitza doituia	395.290	276.450	-30
Aurrezki gordina	308.627	539.031	75
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	177	180	1
Aurrezki garbia	308.450	538.851	75
Zorpetze-maila (%)	0	0	0
Zorpetze-muga (%)	5,3	9	70
Zorpetze-ahalmena (%)	5,3	9	70
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.651.895	3.831.028	5
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.321.049	1.617.473	22
Zor bizia	0	0	0

2015ean, Udalak ehuneko 7 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, ia aurreko ekitaldikoek berdinak izan dira.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bateko jaitsiera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 3 egin dute gora. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 8 igo dira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 215.041 eurokoa da; 2014an, berriz, 142.790 euro negatiboa izan zen.

Aurrekontu-emitza doituia 276.540 eurokoa da.

2015ean, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak 539.000 euro egiten dute.

Zorpetzerik ez dauka, eta ehuneko bederatziko muga du; hori dela eta, badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintzako guztizko gerakina 3,8 milioikoa da, eta ehuneko 5 egin du gora 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoa 1,62 milioi eurokoa da.

Berriozarko Udalak 2006-2015 aldian honako bilakaera hau izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zuzeneko zergak	1.759.133	1.687.925	1.806.201	1.769.062	1.791.732	1.845.870	2.011.021	2.278.777	2.105.804	2.168.961
Zeharkako zergak	193.365	822.666	1.133.424	1.262.131	419.326	544.407	205.780	45.130	48.923	128.475
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerera batzuk	759.370	968.006	1.143.961	1.218.027	1.592.549	886.700	920.748	875.066	729.383	811.395
Transferentzia arruntak	2.479.356	2.709.722	3.027.244	3.100.666	3.132.563	2.826.082	2.700.965	2.899.140	2.839.493	2.789.111
Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	48.224	82.182	680.612	407.247	223.300	286.876	221.459	110.520	92.177	67.350
Inbertsio errealak besterentzea	2.599	16.978.243	0	0	209.127	0	0	0	0	0
Entitateari egindako transferentziak	12.621	879.326	927.358	1.926.590	1.585.317	684.241	549.976	128.501	234.849	26.471
Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	34.622
Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	5.254.668	24.128.070	8.718.800	9.683.723	8.953.914	7.074.176	6.609.949	6.337.134	6.050.629	6.026.387

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Langile-gastuak	2.440.086	2.493.521	3.119.119	3.662.217	3.609.058	3.656.161	3.525.957	3.348.273	3.222.671	3.161.469
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.829.476	2.031.989	2.174.357	1.924.589	1.936.455	1.960.986	1.801.353	1.659.060	1.520.598	1.485.536
Finantza-gastuak	40.301	55.989	975	460	13.220	13.223	12.083	593	177	180
Transferentzia arruntak	639.210	713.857	630.140	928.442	716.134	698.322	770.434	781.240	763.885	779.258
Inbertsio errealak	714.331	1.458.793	3.663.033	6.708.295	2.769.332	3.421.001	3.484.528	675.547	631.089	320.311
Kapital-transferentziak	0	0	135.576	127.438	115.365	32.161	43.784	50.000	54.999	29.970
Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	5.100	0	0	0	7.557
Finantza-pasiboak	74.321	74.321	74.321	74.321	74.321	74.321	966.174	0	0	0
Guztira	5.737.725	6.828.470	9.797.521	13.425.762	9.233.885	9.861.275	10.604.313	6.514.713	6.193.419	5.784.281

Datu hauetatik ondorioztatzen denez, 2007an lortutako aparteko diru-sarrek balio izan dute 2008tik 2012ra gastuen eta diru-sareren artean egon den aldea finantzatzeko, eta urte horretatik aurrera –orduan amortizatu baitzen zorra– inbertsioen beherakada nabarmena izan da, eta gastu arruntek ere behera egin dute. Hori dela eta, 2015ean aurrezki gordin eta garbi positiboak dauzka.

Gastuei dagokienez, gastu handienak 2008tik 2012ra egin dira, inbertsioen ondorioz. 2012tik aurrera, ordea, gastuak nabarmen beheratu dira, eta 2015ekoak 2006koen antzekoak dira.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2015era.

Adierazlea	2011	2015	Aldea (%) 2015/2011
Zorpetze-ahalmena	% -0,20	% 9	-4.600
Inbertsioa biztanleko	386 €	36 €	-91
Gastu arrunta biztanleko	706 €	564 €	-20
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	367 €	323 €	-12

Azken batean, honako hauek dira Udalaren egoeraren ezaugarriak: aurrezki garbi positiboa du, eta zorpetze-ahalmena; gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 1,6 milioi eurokoa da, eta gastu arruntak ehuneko 20 beheratu ditu, tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 12 jaitsi diren bitartean.

IV.2 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-tzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez.

- Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza positiboa da, 42.497 euroko finantzaketa-ahalmena sortu baita, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2015
Emaitza finantzarioa (1. kapitulutik 7.era)	215.041
Kobratzen doikuntza	-172.544
Finantzaketa-ahalmena	42.497

- Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria 497.210 euro txikiagoa da 2014ko ekitaldikoa baino; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	6.193.419	5.776.723
Gastu zenbakarria	6.193.419	5.776.723
BPGaren erreferentziako tasa	% 1,3	0
2015eko gastu zenbakarria	6.273.933	5.776.723

- Finantza-iraunkortasunaren araua: Udalak zorrik ez dauka.

Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak: epe hori 15 eguneko da gaur egun.

IV.3. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

IV.4. ALDERDI OROKORRAK

- 2015eko abenduaren 31n, honako hauek dira ebazteko dauden auzi garrantzitsuenak: partikular batek aurkeztutako apelazio errekurtsio bat, non 287.430 euro erreklamatzeko baititu, eta 272/2013 prozedura, udaletxeko eta kulturguneko (kultur etxeko) obren esleipen-hartzailea izan zen enpresak Berriozarko Udalaren aurka aurkeztutakoa, non 788.641 euro erreklamatzeko baititu.

- Fidantzen kontzeptuari dagozkion saldo zahar batzuk, aplikatzeko dauden diru-sarrera batzuk eta egiteko dauden ordainketa batzuk badaude, 95.000 euro egiten dutenak.

Gure gomendioak:

- *Udalaren kontingentziak oroitidazkian sartzea.*
- *Fidantzen saldo zaharrak aztertu eta erregularizatzea.*

IV.5. LANGILEAK

Langileen gastua 3,16 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 55.

2014ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko bi jaitsi dira, honako xehetasun hauen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Goi-karguak	699	854	22
Kabineteetako bitarteko langileak	86.367	98.916	15
Funtzionarioak	1.095.985	1.068.221	-3
Lan-kontratudun langileak	1.117.269	1.071.100	-4
Bestelako langileak	-	-	
Gizarte-zamak	922.351	922.377	0
Guztira	3.222.671	3.161.469	-2

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko abenduan eman zion hasierako onspena 2015eko plantilla organikoari. Behin betiko onspena 2015eko otsailaren 19ko NAO n argitaratu zen.

Udalbatzak onartutako 2015eko ekitaldiko plantilla organikoan 83 lanpostu daude jasota –horietatik 40 lanpostu bete gabe daude–, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	51	34	17	11
Lan-kontratupekoak	30	7	23	23
Izendapen askea	2	2	0	0
Guztira	83	43	40	34

2015eko abenduaren 31n, Udalean 93 pertsonak egiten dute lan guztira, Udalbatzako kideak konstatu gabe. Hona xehetasunak:

Langileak	Kopurua
Udalbatzako kideak	3
Bitarteko langileak - Izendapen askea	2
Funtzionarioak	33
Lan-kontratupeko langile fin-koak/mugagabeak	28
Aldi baterako lan-kontratudunak	14
Kontratu administratiboa dutenak	13
Guztira	93

Zinogotzi batek lanaldiaren ehuneko 10erako kontratua du, eta honako hauek dira izendapen askeko langileak: udaltzaingoko burua, zeina Udalaren udaltzaingoko funtzionarioa baita, eta giza baliabideetako teknikaria.

Udaleko langileak arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Kopurua
Alkatetza	3
Idazkaritza	2
Arlo ekonomikoa	4
Herritarrentzako arreta bulegoa	3
Giza baliabideak	2
Zerbitzu teknikoak: Kultura, Euskara, Gazteria, Kirolak eta Berdintasuna	6
Hirigintza	2
Zerbitzu anitzak	15
Musika eskola	19
Haur Eskola	19
Ikastetxe publikoa	2
Polizia	16
Guztira	93

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2015eko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Gainera, egiaztatu da aldi baterako kontratuen izapidetzea egokia izan dela, eta horretarako zerrenda eguneratuak erabili direla.

2013ko otsailaren 27ko Osoko Bilkurak 2013-2015 legegintzaldirako enplegu eskaintza publiko onetsi zuen, 10 lanposturekin, nahiz eta indarra duten murrizketen ondorioz ezin izan den deialdirik egin.

IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 1,48 milioi euro egin dute 2015ean, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 26 da. 2014. urtearen aldean, ehuneko bi jaitsi da.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Kirol-eremu estalirako zurgintza-lanetarako hornidura	Hornidura	Hornidura-kontratazioa eskaintza onenarentzat	8.600	3	7.755
Kulturgunea, musika eskola eta atezain-zerbitzuetako guneak garbitzeko laguntza teknikoak	Laguntza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua eskaintza onenarentzat	55.000	1	55.000

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu dela, bai eta kontratuen indarraldiak zuzenak direla ere.

IV.7. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,81 milioikoak izan dira: 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 14, transferentzia arrunten ehuneko 13 eta kapital-transferentzien ehuneko 1 egiten dute.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	2014/2015
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	14.259	14.259	0
Mankomunitateei	367.580	320.716	-13
Diru-sarreren itzulketak	0	42.911	0
Familiei	55.438	50.454	-9
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	46.382	56.229	21
Beste batzuk	280.225	294.689	5
4. Transferentzia arruntak	763.884	779.258	2
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	54.999	29.970	-46
7. Kapital-transferentziak	54.999	29.970	-46
Guztira	818.883	809.228	-1

2014arekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko bat jaitsi dira.

Honako hauek dira 2015ean emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Kopurua
Eskualdeko garraioa	153.440
Gizarte zerbitzuak	167.276
Berriozar kirol elkartearekiko hitzarmena	46.000
Mendialdea Kirol Elkarteak	28.400
Auzokidea Laguntzeko Elkarteak	35.000

Udalak badu diru-laguntzak emateko ordenantza orokorra, 2012ko martxoan behin betiko onetsia. Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak ordenantza horretatik kanpo daude, berriazko ordenantza batean arautu baitira.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

IV.8. INBERTSIOAK

2015. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (314.986 euro) ehuneko 102 bete da, eta 320.311 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko sei.

2014arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 49 –hau da, 311.000 euro– egin dute behera.

Honako hauek dira 2015ean egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Decathlon saltegiaren ondoko hirugarren erreieren obra	51.694
Interes sozial ea orokorreko obrak	84.430
Berriozarko etorbideko argiteria berritzea	133.317

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Prozedura Esleipen	mota kontratua	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Beriozarko etorbi- dearen argiteria	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua eskaintza onenarentzat	146.469	5	95.589

Gastua esleipenaren zenbatekoa baino handiagoa da, zeren eta BEZa, zuzendaritza teknikoari dagozkion gastuak eta onetsitako aldaketak hartzen baititu.

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia – alderdi nagusietan –, bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta beteitzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 6,02 milioioak izan dira; horien ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (3,11 milioi euro) eta transferentzia arruntak (2.8 milioi euro) nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 102koa izan da.

2014. urtearen aldean, aitortutako eskubideak ia ez dira aldatu.

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
1. Zuzeneko zergak	2.105.804	2.168.961	3
2. Zeharkako zergak	48.923	128.475	163
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	729.383	811.395	11
4. Transferentzia arruntak	2.839.493	2.789.111	-2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	92.177	67.350	-27
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.815.781	5.965.293	3
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	
7. Kapital-transferentziak	234.848	26.471	-89
8. Finantza-aktiboak	0	34.622	
9. Finantza-pasiboak	0	0	0
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	234.848	61.093	-74
Diru-sarrerak, guztira	6.050.629	6.026.387	-

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmen-tzen dira. 2014ko ekitaldiarekin alderatuta, ehunekoetan izan diren aldaketa handienak zeharkako zergatan eta kapital-transferentzien beharapenean gertatu dira.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
Lurraren kontribuzioa	1.398.110	1.391.876	0
Ibilgailuak	451.267	449.834	0
Lurren balio-gehikuntza	66.423	127.408	92
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	190.004	199.842	5
EIOZa	48.923	128.475	163
Guztira	2.154.727	2.297.436	7

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, igoera aipagarrienak lurren balio-gehikuntzari eta EIOZari dagozkionak dira.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2214	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,3-3,1	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	8,17	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Diru-sarreraren aurrekontuko kontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketaren bitartez, oro har, egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

IV.10. HIRIGINTZA

Berriozarko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, "Hirigintza Alorra" izenekoaren bitartez. Honako hauek dira organo horri atxikitako langileak: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat (2015etik eszedentzian) eta ofizial administrari bat.

Gainera, Udalak badu kanpoko aholkularitza juridikoa hirigintzaren arloan, abokatu batek ematen diona. Horrek 5.000 euroko gastua ekarri du 2015ean.

1991ko maiatzaren 8an onetsitako arau subsidiarioak dira Berriozarko planeamendu-tresna. 20 urte baino gehiago iraganda, ia erabat beteta daude arau horietan aurreikusitako hirigintza-helburuak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko. Foru lege horretan ezarritakoak betetze aldera, Udalak 2005eko uztailean esleitu zituen Udal Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoko lanak.

Lurraren Erabilerrako Estrategia eta Eredua (LEEE), udal plan orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dagoena, 2006ko otsailean onetsi zen. Plan berria idazteko lanak 2007an esleitu ziren, eta txosten hau idazteko datan amaitu gabe daude. Honako hau dio oroitidazkiak:

"...hirigintza plan orokorra ezin da amaitu, Defentsa Ministerioak kuartela babesteko bandaren hirigintza diseinua finkatu gabe baitauka.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa ego-kietarako.

Udalak badu Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro espezifiko bat, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak agindu bezala; haren osaera zehatz-mehatz azaltzen da Udalaren oroitidazkian. Halaber, Udalak hirigintza-hitzarmenen erregistroa kudeatzen du.

Udal Plan berria egiteko prozesua bukatzea gomendatzen dugu.

IV.11. BERRIKILAN S.L. SOZIETATEA

2011n sortu zen, baina 2012an hasi da jarduten. 2012ko urtarrilean enkargatu zitzaion Berriozarko Udalaren kirol zerbitzuen prestazioa kudeatzea; aurrez, zeharkako kudeaketaren bidez ematen ziren zerbitzu horiek.

Horretarako, Berriozarko kirol eremuko instalazioak hamar urterako errentan eman zitzaizkion. 2015ean ordaindu beharreko kopurua hilabetean 12.164 eurokoa da.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da Udalak kalkulatu duela kirol eremuaren amortizazioaren kopurua 200.000 euro baino gehixeago izanen dela.

2012an, Udalaren lokalak garbitzeko lanak enkargatu zitzaizkion. 2013ko irailean hasi da lan horretan, eta urte berean, hain zuzen, Mendialdea ikastetxe publikoaren garbiketa ere enkargatu zaio.

Sozietateak 36.768 euroko etekina lortu du.

Kirol instalazioen kudeaketari dagokionez –udal enpresa publikoari zerbitzuaren kudeaketa enkargatzen zaio eta instalazioak errentan ematen zaizkio, kanon baten truke–, beharrezkotzat jotzen dugu kudeaketa horren esparru juridikoa argitzea, modu zehatzagoan erregulatuz egindako enkarguaren araubide ekonomiko-finantzarioa eta errentamenduaren figuraren erabilera saihestuz, zerbitzu publiko baten zeharkako kudeaketarako modu gisa, Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak 1/2010 txostenean adierazitakoaren ildotik.

Hona sozietatearen balantzea eta emaitzen kontua abenduaren 31n.

Galeren eta irabazien kontua 2015eko abenduaren 31n

Deskribapena	2015eko ekitaldia
Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.093.377
Hornidurak	-92.430
Langile-gastuak	-663.257
Ustiaketaren bestelako gastuak	-294.966
Ibilgetuaren amortizazioa	-3.645
Ustiaketaren emaitzak	39.079
Finantza-gastuak	-73
Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den narriadura	-2.238
Emaitza finantzarioa	-2.311
Zerga aurreko emaitza	36.768
Ekitaldiko emaitzak	36.768

Sozietateen gaineko zergaren zenbatekoa ez da kalkulatu

Egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n

Aktiboa

Deskribapena	2015eko ekitaldia
Ibilgetu materiala	32.917
Epe luzeko finantza-inbertsioak	-170
Aktibo ez-korrontea, guztira	32.747
Zordunak	67.005
Epe laburreko ekintzak	12.295
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	92.733
Aktibo korrontea, guztira	172.033
Aktiboa, guztira	204.780

Pasiboa

Deskribapena	2015eko ekitaldia
Kapital soziala	3.300
Erreserbak	26.555
Galerak eta irabaziak, 2015-12-31n	49.015
Ondare garbia, guztira	78.870
Epe luzeko zorrak	20.891
Pasibo ez-korrontea, guztira	20.891
Epe laburreko zorrak	9.020
Zerbitzu-ematearen ondoriozko hartzekodunak	32.117
Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	44.386
Gizarte segurantzaren erakundeak	16.161
Langileak	3.336
Pasibo ez-korrontea, guztira	105.019
Pasiboa, guztira	204.780

Gizarte Segurantzaren hartzekodunen eta Ogasuneko hartzekodunen zenbatekoak honako hauei dagozkie: abenduko kotizazioari, BEZaren saldoari eta PFEZaren laugarren hiruhilekoaren atxikipenari.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Berriozarko Udalaren 2015eko kontu orokorraren behin-behineko auditoria-txostenari aurkeztutako alegazioa.

Kontuen Ganberak Berriozarko Udalaren 2015eko kontu orokorraren auditoria egin du. Kontuen Ganberak 2016-12-21ean aurkeztu zion Udalari behin-behineko txostena.

Udalak honako gogoeta hau egin beharra dauka txosten horri buruz:

Hirigintzari dagokionez, behin-behineko txostenak gomendatzen du "udal plan berria egiteko prozesua bukatzea".

Gai horri buruz, 2015ean, Udalak erabaki zuen Udalaren hirigintza plana idazteko kontratua, hura idazteko taldearekin zeukana, deuseztatzea.

Bere aldetik, Nafarroako Gobernuak, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren abuztuaren 3ko 634/2016 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen Udalaren hirigintza plan orokorraren idazketa finantzatzeko hitzarmena deuseztatzea.

Udal arkitektoak erantsi dugun txostenean aipatzen duenez, behin Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) eginda, Defentsa Ministerioak ohartarazi zuen planeamenduak ukitu behar zituen lurra kuarter militarren defentsa-perimetroaren barruan zeudela eta, horrenbestez, ezin zela plangintza berririk egin baldintza horietan. Horrenbestez, udal plana egiteko prozedura ixteko urratsak egin ditu Udalak.

2016ko abenduaren 28a

Alkatea: Raul Maiza Gonzalez

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Berriozarko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

